2024KO SAN JUAN JAIETAKO TXOSNAK

2024ko San Juan jaietan txosnak jartzeko interesa duen pertsona edo erakunde orok egin beharko du eskaera.

Txosnak jartzeko espazioa Eibarko Txikito izango da, 8 eta 10 zenbakien parean, eta Txaltxa Zelai.

Eskaera egiteko epea 2024ko maiatzaren 8tik 21era (biak barne) izango da.

Eskaera egiteko bideak:

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

- **Presentzialki,** PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa, (Udaletxea, beheko solairua, Untzaga plaza 1).
  Ordutegia:
  – Astelehenetik asteazkenera: goizez 8:30-14:00. Arratsaldez: 15:00-19:00.
  – Ostegun eta ostiraletan: 8:30-14:30.

  Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:
  – Udal webgunearen bitartez: https://hitzorduak.eibar.eus/pegora/eu
  – Telefonoz: 940 70 84 00 / 010.

Eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Sanjuanetan txosnak jartzeko eskaera behar bezala beteta (inprimakia PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus eskuragarri).
- Eskatzailearen NAN, IFZ edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANa edo balio bereko dokumentua, eta ordezkaritzaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.
- Elikagaien manipulatzaile karneta.

Txosnak jartzeko alderdiak adosteko bilera udaletxean egingo da, okupazioaren aurreko egunetan. Bileraren eguna, lekua eta ordua aldez aurretik argitaratuko dira udalaren webgunean (www.eibar.eus).

Txosnak jartzeko baimena emateko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Jarriko den txosnaren segurtasun-ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko asegurua.

Dokumentazio hori txosna jarri ondoren aurkeztu beharko da, eta, beranduenez, okupazio-baimena hasi baino 2 egun lehenago.

Txosnak jartzeko baimena dutenek udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen Ordenantzan ezarritako tasa ordainduko dute.

Eibar, 2024ko apirilaren 23an.